

BOSTEKO 2024

KOMISARIOTZAREN HAUTAKETARAKO OINARRIAK

BASES PARA LA SELECCIÓN DEL COMISARIADO

I SARRERA

BOSTEKO erakusketa koordinatu ibiltaria da, eta bere helburu nagusia da euskal artista plastiko ezagunen obra ezagutaraztea eta zabaltzea erakusketa aurkeztzen den Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan.

Erakusketaren bidez, arte garaikidea herritarrei, oro har, modu irisgarrian ezagutarazi nahi dugu.

BOSTEKO antolatzen dugu Bizkaiko Lurralde Historikoko bost udalerritako (Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Basauri, Getxo eta Leioa) kultura zerbitzu edo sailek. BOSTEKO erakusketa ibiltarian hiru artistaren obra erakutsiko ditugu, eta partaide bakoitzaren estiloa islatzeko lau obra erakutsiko ditugu, gutxienez.

Erakusketa erakusgai dauden obren harigidari izan liteke, edo ez. Iaz, 2023an, **"Kaosetik Kosmosera: Unibertsoa Paisaiak"** izenburupean, Iñigo Sarriugartek komisariatu zuen erakusketa ibiltaria.

Erakusketaren izenburuari hasiera ematen dion "kaos" terminoa unibertsoaren jatorrizko egoeran zegoen desordenarekin lotzen da, eta, ondorioz, kosmosaren eraketaren aurreko hutsunearekin, non materia bere artikulazio abstraktu eta informalak irudikatzen zuen.

Maria Alonso Paezen (Getxo, 1959) pinturak sinbolizatutako kaos hori entropiarekin lotzen da, naturan dagoen anabasa eta

I INTRODUCCIÓN

BOSTEKO es una exposición coordinada itinerante cuyo objetivo principal es la difusión y el conocimiento de la obra de las y los artistas plásticos vascos reconocidos en los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia donde se presenta.

Pretende dar a conocer el arte contemporáneo de una forma accesible al público en general.

La organización de BOSTEKO corre a cargo de los servicios o departamentos de cultura de cinco Municipios del Territorio Histórico de Bizkaia (Amorebieta - Etxano, Arrigorriaga, Basauri, Getxo y Leioa). Con la exposición itinerante BOSTEKO se muestra el trabajo de tres artistas con un mínimo de cuatro obras representativas del estilo de cada participante.

La exposición puede tener o no, un hilo conductor de las obras que se exponen. Este pasado año 2023 bajo el título **"Del Caos al Cosmos: Paisajes del Universo"** la muestra itinerante fue comisariada por Iñigo Sarriugarte.

El término "caos" que da comienzo al título de la exposición se relaciona con el desorden existente en el estado original del universo y, por ende, con el vacío que precedió a la formación del cosmos, donde la materia venía representada por su articulación abstracta e informal.

Este caos simbolizado por la pintura de María Alonso Páez (Getxo, 1959) se conecta a su vez con la entropía al

anabasa maila aztertzean. Era berean, termodinamikaren bigarren printzipio gisa agertzen da, sistema bati datxekion nahasmena oinarri hartuta. Hasierako anabasa horretatik, unibertsoak ponderazio eta oreka baterantz jotzen du, eta faktore horiek Gorka Gondraren (Mungia, 1978) proposamen abstraktu geometrikoek eta Víctor Arrizabalagaren (Mañaria, 1957) pieza organikoenek sinbolizatzen dituzte, unibertsoan ikusitako ekumenotasun eta egonkortasunaren bilaketa kokatzea ahalbidetzen duten proposamenen bidez. Bi kontzeptuak (caos-cosmos) banaezinak dira, erakusketan hiru sortzaile horien lanak txandaka antolatzen direla ikusten den bezala.

analizar el grado de desorden y de caos existente en la naturaleza. Igualmente, se manifiesta como el segundo principio de la termodinámica en base al desconcierto inherente a un sistema. Desde este caos primigenio, el universo tiende hacia una ponderación y equilibrio, factores que son simbolizados por las propuestas abstractas de carácter geométrico de Gorka Gondra (Mungia, 1978) y las piezas más orgánicas de Víctor Arrizabalaga (Mañaria, 1957), mediante propuestas que permiten enmarcar la búsqueda de ecuanimidad y estabilidad observadas en el universo. Ambos conceptos (caos-cosmos) son inseparables, de la misma manera que se advierte en la exposición con la disposición alterna de las obras de estos tres creadores.

II ERAKUSKETA IBILTARIAREN HAUTAKETA: KOMIARIOA ETA ARTISTAK

Erakusketaren komisariotzarako hautagaiek BOSTEKOn Batzordeari (5 aretoetako arduradunek osatua) proiektu artistikoa aurkeztu beharko diote. Bertan zehaztu beharko dira zeintzuk izango diren artistak eta erakutsiko diren obrak, hainbat alternatibarekin, kontsentsu bidez egin ahal izateko artisten eta obren hautaketa.

BOSTEKOn ibilbidearekin jarraituz, proposatutakoak Euskal Autonomia Erkidegoko artistak izan behar dira, edo bertan bizi direnak. Proposatzen duten obra eguneratuta egon beharko da, indarrean, eta antolatzen duten aretoen ezaugarrietara egokitutako tamaina izan beharko du.

Artistak Bizkaikoak izatea baloratuko da, hau da, Bizkaian erroldatuta daudenak edo Bizkaian jaiotakoak. Halaber, proposamenak aukeratzean baloratuko da artistak arte bisualen Ertibil-Bizkaia erakusketa ibiltarian azken hiru urteetan saria irabazi izana.

Ilido horretatik, proposatutako diziplinen heterogeneotasuna eta areto bakoitzaren

II SELECCIÓN DE LA MUESTRA ITINERANTE: COMISARIO/A Y ARTISTAS

Las personas aspirantes a comisariar la muestra tendrán que presentar a la Comisión de BOSTEKO, formada por las y los responsables de las cinco salas, la propuesta de proyecto artístico donde se detallen los y las artistas y las obras a exponer con diferentes alternativas para que consensuadamente se elija la selección artística y las obras.

Siguiendo con la trayectoria de BOSTEKO, las personas propuestas deberán ser artistas de la Comunidad Autónoma Vasca o residentes en ella, y la obra que proponen deberá ser actual y estar vigente y dimensionada a las características de las salas organizadoras.

Se valorará que las personas artistas sean de Bizkaia (considerándose como tal aquellas personas empadronadas en Bizkaia y/o nacidas en Bizkaia). Asimismo, se valorará a la hora de elegir entre las propuestas que las personas artistas hayan sido premiadas en la Muestra itinerante de artes visuales Ertibil-Bizkaia en los últimos tres años.

En este sentido se valorará la heterogeneidad de las disciplinas

erakusketa espazioen erabilera orekatua ere aintzat hartuko dira.

Komisariotzaren proposamenak areto antolatzaileen zuzendaritzara bidali beharko dira 2024ko apirilaren 15 baino lehen (hura barne) eta hautagaien kurrikulum artistikoa eta akademikoa bidali beharko da horiekin batera. Proposamen horrek, gutxienez, honako puntu hauek hartu beharko ditu barne:

1. Komisarioaren eta proposatutako artisten kurrikuluma.
2. Proposamenaren izenburua eta edukia, horren ardatz nagusia eta erakusketaren argudio ildoak. Era berean, erakusketa osatzeko proposatutako obren zerrenda bat egingo du.
3. Erakusketa espazio bakoitzera egokitu beharko da (areto bakoitzaren ezaugarriak 1. eranskinean daude). Erakusketarako eskura ez dauden beste elementu batzuk behar izanez gero, komisarioaren erantzukizuna izango da eta ardura hori bere esku egongo da. Puntu hori proiektuan zehaztu eta aldeztu aurretik adostu beharko da areto bakoitzarekin.
4. Proiektuaren kronograma. Hori sortzeko areto bakoitzerako aurretiaz ezarritako datak hartu beharko dira aintzat (2. eranskina). Kronograman honako hauek zehaztu beharko dira: obrak gela bakoitzera noiz heldu eta irtengo diren, muntatzeko eta desmuntatzeko ordutegiak, eta udalerrien arteko garraio-datak.
5. Komisariotzak ekarri beharreko materialen inbentarioa. Gainera, kontuan hartuta areto bakoitzak material espezifiko batzuk dituela (1. eranskinean zehazten direnak), komisariotzak proposamenean zehaztu beharko du zeintzuk erabiliko dituen bakoitzean, eta areto bakoitzarekin koordinatu beharko du eskatutakoa.

propuestas y el uso equilibrado del espacio expositivo de cada sala. Así mismo se considerará el aporte innovador del proyecto.

Las propuestas de Comisariado deberán enviarse a las direcciones de las salas organizadoras antes del 15 de abril de 2024 e irán acompañadas de un currículum artístico y académico de quienes aspiren a serlo, dicha propuesta de exposición deberá contener como mínimo los siguientes puntos:

1. Currículum de la persona comisaria y de los/as artistas propuestos/as.
2. Título y contenido de la propuesta donde se detalle el hilo conductor de la misma y la línea argumental de la muestra. Igualmente se hará una relación de las obras propuestas para conformar la muestra.
3. Adaptación de la exposición a cada espacio (las características de cada sala y el detalle de sus materiales específicos se pueden consultar en el Anexo 1). En el caso de que la muestra propuesta requiera de otros elementos no disponibles, éstos serán responsabilidad e irán a cargo de la o el comisario, y este punto deberá ser detallado en el proyecto y consensuado con cada sala previamente.
4. Cronograma del proyecto. Para la elaboración del mismo habrá de tenerse en cuenta las fechas establecidas previamente para cada sala (Anexo 2). En el cronograma deberán detallarse fechas de llegada y salida de las obras a cada una de las salas, los horarios de montaje y desmontaje, así como las fechas de transporte entre los municipios.
5. Inventario de materiales a aportar por el comisariado. Además, teniendo en cuenta que cada sala cuenta con unos materiales específicos que se detallan en el Anexo I, el comisariado deberá detallar en su propuesta cuáles de éstos utilizará en cada sala, coordinando con cada sala su petición.

6. Proiektua jakinarazteko eta hedatzeko proposamena.

7. Bitartekotza plana.

8. Proposamenaren balorazioa aberastuko duten euskarriak eta edukiak (bisita gidatuentzako dossierrak, institutuak, prentsa dosierra...).

- Posta elektronikoko bidez bidaliko dira hona:

- AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA.
Mirian Arriaga:
marriaga@amorebieta.eus
- ARRIGORRIAGA.
Sonia Cámara:
scamara@arrigorriaga.eus
- BASAURIKO UDAL KULTURETXEA.
Amaia Artetxe:
arizdorretxea@basauri.eus
- GETXOKO KULTUR ETXEA.
Luzia Martín: lmartin@getxo.eus
- KULTUR LEIOA.
Zuriñe Cuesta: zcuesta@leioa.eus

- Izendatutako proposamena BOSTEKO erakusketa antolatzen duten udalerrien batzordeak egingo du, eta horretarako beharrezko adarretako profesionalen aholkularitza izango du.

- BOSTEKO antolatzen duen udalerrien batzordeak proiektu lehiaketa hutsik geratu dela aitortu ahal izango du proposamenek oinarrietan ezarritako baldintzak behar bezala betetzen ez dituztela uste badu edota proposamenak ez badira garaiz aurkezten. Kasu horretan, batzordeak zuzenean enkargu bat egin ahal izango du.

III KOMISARIOTZAREN ZEREGINAK

BOSTEKOren XXVII. edizioko komisariotzak gauzatu beharreko lanak honako hauek izango dira:

6. Propuesta comunicativa y de difusión del proyecto.

7. Plan de mediación.

8. Cuantos soportes o contenidos enriquezcan la valoración de dicha propuesta (dossier para las visitas guiadas, institutos, dossier de prensa...).

- Se enviarán vía email a :

- AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA.
Mirian Arriaga:
marriaga@amorebieta.eus
- ARRIGORRIAGA.
Sonia Cámara:
scamara@arrigorriaga.eus
- BASAURIKO UDAL KULTURETXEA.
Amaia Artetxe:
arizdorretxea@basauri.eus
- GETXOKO KULTUR ETXEA.
Luzia Martín: lmartin@getxo.eus
- KULTUR LEIOA.
Zuriñe Cuesta: zcuesta@leioa.eus

- La selección de la propuesta designada la realizará la Comisión de los municipios organizadores de BOSTEKO contando para ello con la asesoría de las y los profesionales de la disciplina artística que se precise.

- La comisión de los municipios organizadores de BOSTEKO podrá declarar desierto el concurso de proyectos si considera que ninguna de las propuestas responde satisfactoriamente a los criterios establecidos en las bases o si las propuestas no se presentan en plazo. En ese caso, dicha Comisión podrá realizar un encargo directo.

III COMETIDOS DEL COMISARIADO

Las labores que deberá asumir el Comisariado de la XXVII. Edición de BOSTEKO serán:

- **Proiektua egitea**, erakusketan parte hartuko duten hiru artisten eta obra zehatzak hautatzea.

- **Erakusketaren kudeaketa integrala**: obrak hautatzea, muntatzea eta aretoetara egokitzea eta desmuntatzea, garraiorako prestatzea, artistekin koordinatzea, aurrekontuak eta fakturak koordinatzea.

- **Erakusketa bost aretoetako bakoitzera egokitzea**: erakutsiko diren obren kopurua eta mota, erakutsitako obren iraunkortasunarekin eta segurtasunarekin lotutako arrazoiak lehenetsita. Horretarako, nahitaezkoa izango da aldeaz aurretik areto bakoitza ikustera joatea arduradunarekin batera, espazioa ezagutu zein hura ezagutu ez. Izan ere, espazioen elementuak soilik aldatu ahal izango dira aretoaren arduradunarekin adostu ostean eta bere baimen idatziaren bidez.

- Obrak instalatzeko eta hedatzeko **beharrezko materialak ematea**, areto bakoitzean (horien inbentarioan jasota ez daudenak). Areto bakoitzaren fitxa teknikoa 1. eranskinean dago: areto bakoitzaren planoak eta argazkia, bakoitzaren inbentarioarekin eta baliabide osagarrien zerrendarekin.

- **Proiektua aurkezteko txostena egitea** eta, hala badagokio, egokitzea, udalerri antolatzaile koordinatzaileak dirulaguntzaren eskaera Bizkaiko Foru Aldundian aurkez dezan, betiere 2024ko deialdia amaitu baino 15 egun lehenago.

- **Komunikazio- eta hedapen-euskarrietarako edukiak**:

- **Katalogorako testuak egitea eta argazkiak hautatzea**, baita egiten diren zabalkunde-materialak gainbegiratzea ere, udalerri antolatzaileekin koordinatuta. Katalogoa, ikus-entzunezko memoria eta erabiltzen den beste edozein hedapen-elementu maketatze eta

- **Elaboración del proyecto**, selección de las tres personas artistas y de las obras concretas que participarán en la muestra.

- **Gestión integral de la exposición**: selección de las obras, montaje y adaptación a las salas y desmontaje, preparación para transporte, coordinación con los artistas, coordinación de presupuestos y facturas.

- **Adecuación de la muestra a cada una de las cinco salas**, del número y tipo de obras a exponer, priorizando motivos de perdurabilidad y seguridad de las obras expuestas. Para ello, es imprescindible una visita previa a cada sala junto con él/la responsable al margen de que ya se conozca o no el espacio, teniendo presente que sólo se podrán modificar los elementos de los espacios tras acordarlo con él/la responsable de la sala y con permiso previo por escrito por su parte.

- **Aportación de los recursos materiales** necesarios para la instalación y/difusión de las obras en cada una de las salas y que no estén inventariadas en las mismas. Consultar en el Anexo 1 la ficha técnica de cada sala: planos y fotos de cada una de las salas con sus respectivos inventarios y relación de recursos auxiliares.

- **Elaboración del dossier de presentación** y, en su caso, adecuación del proyecto, para la presentación de la solicitud de Subvención a la Diputación Foral de Bizkaia por parte del municipio organizador coordinador una vez se defina en el decreto, y siempre 15 días antes de la finalización de la convocatoria del 2024.

- **Contenidos para los distintos soportes de comunicación y difusión**:

- **Elaboración de los textos y selección de fotos** para el catálogo, así como la supervisión de los materiales de difusión que se realicen, en coordinación con los municipios organizadores. Coordinación y supervisión del trabajo de maquetación e impresión del catálogo,

inprimatzeko lana koordinatzea eta gainbegiratzea.

- **Testu elebidunak idaztea**, euskarari lehentasuna emanez, **eta** erakusketa publiko(k) **koordinatzea** (prentsaurrekoak - prentsa oharrak), zuzenean Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko prentsa departamenduarekin koordinatuta, baita hala eskatzen duen bost udalerrri antolatzaileetako edozeinekin ere.

- **Erakusketa espazio bakoitzean erakusketa muntatzea eta desmuntatzea.** Komisarioaren lana izango da instalazioa, koordinazioa eta muntatzeko eta desmuntatzeko garaian zuzenean gainbegiratzea komisariotzak bost espazioetan jarritako langile teknikoak. Erakusketak behar bezala muntatzeko beharrezko materialak (obra bakoitza identifikatzeko kartolak, torlojuak, euskarriak, etab.) eta giza baliabideak ere aurreikusi beharko ditu. Obren iristeko, irteteko, muntatzeko eta desmuntatzeko egunak, aurkeztutako kronogramara egokitu beharko dira.

- **Amaierako dosierra** entregatzea udalerrri koordinatzaileari, deialdia aurkezteko epeen arabera, PDF eta Word formatuetan erantsitako dokumentu-euskarriarekin, 2025eko urtarrilaren 31 baino lehen. Dossier horrek honako hauek jasoko ditu: argazkiak, bideoak, egindako jardueren zerrenda, muntaketa-datuaren eragina sareetan, proiektuaren ebaluazio osoa eta hobekuntza-proposamenak.

- **Kudeaketa ekonomikoa:**

- Enpresa hornitzaileen kontrola eta koordinazioa eta fakturen jarraipena proiektu osoan zehar, baita horiek udalerrri antolatzaile bakoitzari bidaltzearen kontrola, teknikariek edo arduradunek aurrez ezarritako gastuen banaketarekin bat eginda. Udalerrri antolatzaile bakoitzari dagokion fakturazioaren banaketa hautatutako proiektua berretsi ostean

memoria audiovisual y cualquier otro elemento de difusión que se utilice.

- **Elaboración de textos bilingües** dando prioridad al euskera y **coordinación de la o las presentaciones** públicas (ruedas de prensa, notas de prensa) en coordinación directa con el departamento de prensa de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia y con cualquiera de los cinco municipios organizadores que así lo requieran.

- **Montaje y desmontaje de la muestra en cada espacio expositivo.** Será labor de la comisaria o comisario la instalación, coordinación y supervisión directa en el montaje y desmontaje de las obras a exponer, así como la coordinación del personal técnico dispuesto por el comisariado en los cinco espacios, previendo el material (cartolas identificativas de cada obra, tornillos, soportes, etc.) y los recursos personales necesarios para el correcto montaje de las exposiciones. La llegada y salida de las obras a exponer, así como el montaje y desmontaje deberán adecuarse al cronograma presentado.

- **La entrega de la memoria y/o** dossier final al municipio organizador coordinador ajustada a plazos de presentación de convocatoria con soporte documental adjunto en formato PDF y Word antes del 31 enero del 2025. Dicho dossier contendrá fotos, videos, relación de actividades realizadas, impacto en redes sociales, datos de montaje, evaluación del proyecto en su totalidad, así como propuestas de mejora.

- **Gestión económica:**

- El control y coordinación de empresas proveedoras, el seguimiento de las facturas de todo el proyecto, así como el control del envío de éstas a cada municipio organizador conforme al reparto de gastos preestablecido por sus técnicas/os responsables. El reparto de facturación correspondiente a cada municipio organizador le será entregado una vez

emango da. Fakturazioa soilik faktura elektronikoen bidez egingo da eta udalerri antolatzaile bakoitzari dagozkionak bidaliko zaizkio 2024ko abenduaren 10a baino lehen, udalerri antolatzaile koordinatzaileak aldeztu aurretik bidalitako koadroaren arabera.

- Aurrekontu banakatua jasotzen duen eranskina aurkeztea.

- **Bitartekotza plana:** Komisarioak koordinatu eta kudeatu beharko ditu bitartekotza planeko jardura guztiak. Horretarako:

- Halakorik egotekotan, **aldeztu aurretik, udalerri bakoitzeko bisita gidatu dossier/fitxa didaktikoa egin** beharko da (euskaraz eta gaztelaniaz, euskarari lehentasuna emanaz), eta hori proposamen orokorrekina batera aurkeztuko da, baloratzeko.

- Bere ardura izango da udalerri bakoitzari egiten diren bisitak udalerri antolatzaileekin koordinatzea. Bisita gidatu kopurua: gutxienez bi (2) bisita egingo dira udalerri bakoitzean.

- Gehienez ere lau (4) bisita egin ahal izango dira udalerri bakoitzeko, komisarioak ezarritako prezioaren barruan. Hori berariaz agerrarazi beharko da amaierako proposamen ekonomikoan. Era berean, ildo horretan, erakusketarekin batera jardura paraleloak proposatu ahal izango dira, ikusleen, artisten, parte-hartzaileen eta kultura adierazpideen arteko hurbiltasunean, zuzenean eta modu pertsonalizatuan (topaketa-eztabaidak, tailerrak, baterako sormenak, bisita gidatuak, animazioak, etab.)....etc.

- Sareen edo datu baseen bidez zabalduko da BOSTEKOn 2024ko edizioa. Zehazki, artearen munduan erreferente jotako espazioetan eta komunikabideetan, esku artean dugun proiektua ahalik eta gehien zabaltze aldera. (Adibidez,

confirmado el proyecto elegido. La facturación se realizará única y exclusivamente mediante facturas electrónicas que deberán ser remitidas a cada municipio, a cada cual las que le correspondan, antes del 10 de diciembre de 2024 conforme al cuadro remitido previamente por el municipio organizador coordinador.

- Presentación de un anexo que recoja el presupuesto desglosado.

- **Plan de mediación:** Será labor del comisariado la realización, coordinación y gestión de todas aquellas actividades incluidas en el plan de mediación. Para ello:

- Si las hubiera, deberá **elaborar previamente un dossier y/o fichas didácticas** para las visitas guiadas (en euskera y castellano, dando prioridad al euskera) que se realicen en cada municipio, el cual se presentará junto a la propuesta general para su valoración.

- Será responsabilidad del comisariado **la coordinación con los municipios** organizadores de las visitas en cada municipio. Número de visitas guiadas: como mínimo se llevarán a cabo 2 (dos) visitas en cada municipio.

- Podrán realizarse hasta un máximo de 4 (cuatro) visitas por municipio dentro del precio estipulado para el comisario/a y deberá quedar reflejado en la propuesta económica final. Así mismo queda abierta esta línea a proponer actividades paralelas a la exposición que estén basadas en un contacto de proximidad, directo y personalizado entre públicos, artistas, participantes y formas de expresión cultural, tales como encuentros-discusión, charlas y conferencias, talleres, creaciones colectivas, animaciones,...etc.

- La difusión en redes o bases de datos de esta edición BOSTEKO 2024 en aquellas RRSS de espacios y medios de referencia en el mundo del arte que den mayor difusión al proyecto que nos ocupa. (Por ejemplo, introduciendo banners en

arteinformado, cultunet, kulturklik, kultura magazinak eta bestelako sare sozial egokietan bannerrak txertatuta). Arreta berezia jarri beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako betebeharrei, proiektu honetan kudeatu beharreko edukiei dagokienez.

arteinformado, culturnet, kulturklik, magazines de cultura y RRSS afines). Se deberá prestar especial atención a las obligaciones establecidas en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (LOPD-GDD) en cuanto a los contenidos a gestionar en este proyecto.

IV AURREKONTUA

- Lan horiek guztiak egiteagatik, erakusketaren komisarioak 5.000,00 euro (bost mila) jasoko ditu, zergak barne. Zenbateko hori hainbanatuta faktura elektronikoko bidez fakturatu beharko die udalerrri sustatzaileei.
- Materialak argitaratzeko, grabatzeko, garraiatzeko, lekualdaketen aseguratuko eta artistei ordaintzeko lanak komisariotzarako zehaztutako zenbateko horretatik at geldituko dira.
- BOSTEKO erakusketa ibiltariaren guztizko aurrekontua 22.500,00 € da (4.500,00 € udalerrri bakoitzeko, BEZa barne), eta zenbateko horretan sartuta daude erakusketaren gastu guztiak: komisariotza, garraioa, aseguruak, artisten ordainsariak, hedapen-euskarriak (katalogoa, postalak), bitartekaritza-plana, etab.

IV PRESUPUESTO

- Por la realización de todos estos trabajos el Comisario/a de la muestra percibirá la cantidad de 5.000,00 € (cinco mil) impuestos incluidos. Cantidad que deberá facturar mediante factura electrónica.
- Los trabajos de edición de materiales, grabación, transporte, seguro de traslados y pago a personas artistas quedarán al margen de esta cantidad definida para el Comisariado.
- El presupuesto total de la exposición itinerante BOSTEKO asciende a 22.500,00 € (4.500,00 € por municipio IVA incluido), y están incluidos en esta cantidad todos los gastos de la misma: comisariado, transporte, seguros, honorarios de artistas, soportes de difusión (catálogo, postales...), plan de mediación, etc.

V KRONOGRAMA

Atal honetan, komisarioaren proposamenak proiektuaren mugarriak ezarri beharko ditu, materialen sarrera eta irteera epeak, eta erakusketak muntatu eta desmuntatzeko epeak errespetatuz. Inauguraziorako dosierren eta katalogoen aurkezpen eguna, prentsaurrekoak eta jakinarazpena, proiektua dirulaguntzara aurkeztea.

Aretoetan egingo diren erakusketen egutegia 2. eranskinean kontsulta daiteke.

V CRONOGRAMA

En este apartado, la propuesta del comisariado deberá establecer los diferentes hitos del proyecto respetando los plazos que se marcan en cuanto a fechas de entrada y salida de materiales, montaje y desmontaje de las exposiciones. Fecha de presentación de dossiers y catálogos para inauguración, ruedas de prensa y comunicación, presentación del proyecto a la subvención.

Consultar Anexo 2 para ver calendario de exposiciones en las diferentes salas.

VI ZABALTZEA	VI DIFUSIÓN
Nahitaezko betebeharrak udal koordinatzailearekin adostu beharreko alderdiak: • Doako eta hautatutako zabalkunderako katalogoa koordinatzea eta egitea (200 katalogo + 30 prentsa dossier), katalogoaren irudi historikoa jarraitzen duen erakusketako obren argazkiekin, koloretan, eta artisten biografiekin. • BOSTEKOn edizio honen irudiarekin digitalizatutako kartela argitaratzea, erakusketaren datak eta tokiak, parte hartzen duten udalen logotipoak eta Bizkaiko Foru Aldundiarenak jasotzen dituen.	Aspectos de obligado cumplimiento y que deberán ser consensuados con el ayuntamiento coordinador: • Coordinación y realización de un catálogo de difusión gratuita y seleccionada (200 catálogos + 30 dossiers de prensa) con las fotografías en color de las obras expuestas y biografías de los artistas, que respetará la imagen histórica del catálogo. • Edición de un cartel digitalizado con la imagen de esta edición de BOSTEKO con las fechas y lugares de exposición, los logotipos de los Ayuntamiento participantes y de la Diputación Foral de Bizkaia.
Komisariotzaren proposamenari egokitutako alderdiak: • Komisariotzaren proiektuan aurkezten den proposamena edo Instagram eta beste sare sozial batzuen bidez zabaltzea. • Artisten aurkezpenaren spot bideoa. • BOSTEKO proiektuaren aurkezpen orokorraren sustapen bideoa, berariaz aipatuta proiektuaren helburua, datak eta parte hartzen duten erakundeak. • Datu baseak. Memoria xehatua, proiektuaren espazio eta maila guztien zabalkundea islatuko duena.	Aspectos ajustados a la propuesta del comisariado: • Difusión en Instagram y otras RRSS o propuesta que se presente en el proyecto de comisariado. • Vídeo spot presentación de los y las artistas. • Vídeo promoción presentación del proyecto BOSTEKO en su generalidad, mención expresa a objetivo del proyecto, fechas e instituciones participantes. • Bases de Datos. Memoria pormenorizada que refleje la difusión del proyecto en sus diferentes espacios y niveles.
VII BOSTEKOn BILAKAERA	VII EVOLUCIÓN DE BOSTEKO
Urte hauetan zehar izandako komisarioek gainbegiratu eta hautatuta, berrogeita hamar euskal artista inguru baino gehiagok parte hartu dute orain arte. Sortzaileen kolektiboak ekoiztuta, oraingo artearen historiaren ibilbidearen errepaso eta berrikuspen mardula dakar horrek.	Bajo la supervisión y selección de los diferentes comisariados a lo largo de estos años se ha contado con la presencia de más de medio centenar de personas artistas vascas en lo que supone toda una revisión y recorrido por la historia del arte actual producido por dicho colectivo creador.

KOMISARIOTZA: ALICIA FERNÁNDEZ

1998. I. edizioa. "BOSTEKO 98". EHuko Arte Ederretako irakasleak:

ALFONSO GORTAZAR, ALBERTO REMENTERIA, DANIEL TAMAYO, ANGEL GARRAZA eta JOSÉ ANGEL LASA.

1999. II. edizioa. "BOSTEKO 99". Irudizko hizkuntzak:

MARI PURI HERRERO, MERCHE OLABE, PEDRO TXILLIDA, KOLDOBIKA JAUREGI y VICENTE & FERNANDO ROSCUBAS.

2000. III. edizioa. "BOSTEKO 00". Abstrakzioak:

MARTA CÁRDENAS, GABRIEL RAMOS URANGA, JOSÉ LUIS ZUMETA, VICENTE LARREA y JOSÉ ZUGASTI.

2001. IV. edizioa. "BOSTEKO 01". Tokiak eta lekuak:

XABIER AGIRRE, ADRIÁN FERREÑO, RICARDO TOJA, ISABEL GARAY y BAROJA COLLET.

2002. V. edizioa. "BOSTEKO 02". Aurkitutako paisaiak:

CARMELO ORTIZ ELGUEA, RAFAEL RUIZ BALERDI, RAMÓN ZURIARRAIN, ANDRÉS NAGEL y JOSÉ RAMÓN ANDA.

2003. VI. edizioa. "BOSTEKO 03". Formak eta Figurak:

ANTÓN HURTADO, PEDRO SALABERRI y GERARDO ARMESTO.

2004. VII. edizioa. "BOSTEKO 04". Euskal Eskola:

AMABLE ARIAS, JUAN MIEG y NESTOR BASTERRETXEA

2005. VIII. edizioa. "BOSTEKO 05". Keinua: MIKEL DíEZ ALABA, CARMELO CAMACHO e IÑAKI OLAZÁBAL

2006. IX. edizioa. "BOSTEKO 06". Arkitekturak eta errealtatea:

JESÚS MARI LAZKANO, JAVIER RIAÑO y XABIER MORRÁS.

2007. X. edizioa. "BOSTEKO 07". Pasioa eta aritzea.

COMISARIADO POR ALICIA FERNÁNDEZ

1998. I edición. "BOSTEKO 98". Profesores de Bellas Artes EHU/UPV:

ALFONSO GORTAZAR, ALBERTO REMENTERIA, DANIEL TAMAYO, ANGEL GARRAZA y JOSÉ ANGEL LASA.

1999. II edición. "BOSTEKO 99". Lenguajes figurados:

MARI PURI HERRERO, MERCHE OLABE, PEDRO TXILLIDA, KOLDOBIKA JAUREGI y VICENTE & FERNANDO ROSCUBAS.

2000. III edición. "BOSTEKO 00". Abstracciones:

MARTA CÁRDENAS, GABRIEL RAMOS URANGA, JOSÉ LUIS ZUMETA, VICENTE LARREA y JOSÉ ZUGASTI.

2001. IV edición. "BOSTEKO 01". Sitios y lugares:

XABIER AGIRRE, ADRIÁN FERREÑO, RICARDO TOJA, ISABEL GARAY y BAROJA COLLET.

2002. V edición. "BOSTEKO 02". Paisajes encontrados:

CARMELO ORTIZ ELGUEA, RAFAEL RUIZ BALERDI, RAMÓN ZURIARRAIN, ANDRÉS NAGEL y JOSÉ RAMÓN ANDA.

2003. VI edición. "BOSTEKO 03". Formas y Figuras:

ANTÓN HURTADO, PEDRO SALABERRI y GERARDO ARMESTO.

2004. VII edición. "BOSTEKO 04". Escuela Vasca:

AMABLE ARIAS, JUAN MIEG y NESTOR BASTERRETXEA.

2005. VIII edición. "BOSTEKO 05". El gesto: MIKEL DíEZ ALABA, CARMELO CAMACHO e IÑAKI OLAZÁBAL.

2006. IX edición. "BOSTEKO 06". Arquitecturas y realidad:

JESÚS MARI LAZKANO, JAVIER RIAÑO y XABIER MORRÁS.

2007. X edición. "BOSTEKO 07". Pasión y entrega:

BONIFACIO ALFONSO, JUAN LUIS
GOENAGA y FERNANDO BIDERBOST.

2008. XI. edizioa. "BOSTEKO 08". Paisaiak
eta Lurraldeak. IÑAKI CERRAJERÍA, PATXI
COBO y CARLOS MARCOTE.

2009. XII. edizioa. "BOSTEKO 09". Giza
Figura:
JORGE GARCÍA, DORA SALAZAR y BEGOÑA
ZUBERO.

KOMISARIOTZA: ITZIAR MENDILUCE

2010. XIII edizioa. "BOSTEKO 10".
Erretratua:
ELENA GOÑI, RAMÓN PÉREZ e IGNACIO
SÁEZ.

2011. XIV edizioa. "BOSTEKO 11". Barne
Begiradak:
ELSSIE ANSAREO, MABI REVUELTA y
EDUARDO SOURROUILLE.

KOMISARIOTZA: HILARIO MOZO

2012. XV edizioa. "BOSTEKO 12".
Errealitateak.
LOURDES VICENTE, JUAN SAGASTIZABAL e
IÑAKI BILBAO.

KOMISARIOTZA: LUIS JAVIER UGARTE

2013. XVI edizioa. "BOSTEKO 13".
Errealitatearen fikzioak:
SEÑORA POLAROISKA, JUANA GARCÍA
POZUELO y ÁLVARO GIL.

KOMISARIOTZA: ANA LOPEZ ASENSIO

2014. XVII edizioa. "BOSTEKO 14".
Sorkuntza, birsorkuntza eta kopia:
ALBERTO ALBOR, IRANZU ANTONA y KEPA
GARRAZA.

KOMISARIOTZA: AMAGOIA GARAIZABAL

2015. XVIII edizioa. "BOSTEKO 15".
Figurazioa eta figurazioak:

BONIFACIO ALFONSO, JUAN LUIS GOENAGA
y FERNANDO BIDERBOST.

2008. XI edición. "BOSTEKO 08". Paisajes y
Territorios: IÑAKI CERRAJERÍA, PATXI COBO
y CARLOS MARCOTE.

2009. XII edición. "BOSTEKO 09". La Figura
Humana:
JORGE GARCÍA, DORA SALAZAR y BEGOÑA
ZUBERO.

COMISARIADO POR ITZIAR MENDILUCE

2010. XIII edición. "BOSTEKO 10". El
Retrato:
HELENA GOÑI, RAMÓN PÉREZ e IGNACIO
SÁEZ.

2011. XIV edición. "BOSTEKO 11". Miradas
Internas:
ELSSIE ANSAREO, MABI REVUELTA y
EDUARDO SOURROUILLE.

COMISARIADO POR HILARIO MOZO

2012. XV edición. "BOSTEKO 12".
Realidades:
LOURDES VICENTE, JUAN SAGASTIZABAL e
IÑAKI BILBAO.

COMISARIADO POR LUIS JAVIER UGARTE

2013. XVI edición. "BOSTEKO 13". Ficciones
de la realidad:
SEÑORA POLAROISKA, JUANA GARCÍA
POZUELO y ÁLVARO GIL.

COMISARIADO POR ANA LOPEZ ASENSIO

2014. XVII edición. "BOSTEKO 14". Creación,
recreación y copia:
ALBERTO ALBOR, IRANZU ANTONA y KEPA
GARRAZA.

COMISARIADO POR AMAGOIA GARAIZABAL

2015. XVIII edición. "BOSTEKO 15".
Figuración y figuraciones:

ANA RIAÑO, ROBERTO AGUIRREZABALA e IKER SERRANO.

KOMISARIOTZA: POR HILARIO MOZO

2016. XIX edizioa. “BOSTEKO 2016”. Lurraldetik kanporatutakoak: LAURITA SILES, DAVID HORNBAC, LEIRE URBELTZ

KOMISARIOTZA: IKER SERRANO

2017. XX edizioa. “BOSTEKO 2017”. Zeharkako espazioak, eremu pikturikoak:

DAMARIS PAN, USOA FULLAONDO, TAXIO ARDANAZ.

KOMISARIOTZA: IÑIGO SARRIUGARTE

2018. XXI edizioa. “BOSTEKO 2018”. Isiltasunaren poetikak, esentziak errosonantzian. LUIS MIGUEL GÓMEZ, KOLDO ETXEBARRIA y JESUS LIZASO

KOMISARIOTZA: IBON GARAGARZA BERGER

2019. XXII edizioa. “BOSTEKO 2019”. Marrazkitik harago. Figura eta paisaia. GENTZ DEL VALLE, MERCHE PERIZ Y SONIA RUEDA.

KOMISARIOTZA: IÑIGO SARRIUGARTE

2020. XXIII edizioa. “BOSTEKO 2020”. Begirada dibergenteak: Shakkei ukitu bat.

JAVIER LANDERAS, MIKEL LERTXUNDI, LAURA SAN JUAN.

KOMISARIOTZA: IVAN GOMEZ eta IDOIA LEACHE

2021. XXIV edizioa. “BOSTEKO 2021”. Zure gorputza agertu izanagatik piztuta: ELENA GOÑI, DANIEL LLARIA E IZARO IEREGI.

KOMISARIOTZA: AMPARO LOZANO ETA JULEN ARALUCE

ANA RIAÑO, ROBERTO AGUIRREZABALA e IKER SERRANO.

COMISARIADO POR HILARIO MOZO

2016. XIX edición. “BOSTEKO 2016”. Transterrados: LAURITA SILES, DAVID HORNBAC, LEIRE URBELTZ.

COMISARIADO POR IKER SERRANO

2017. XX edición. “BOSTEKO 2017”. Espacios en transición, territorios de lo pictórico:

DAMARIS PAN, USOA FULLAONDO, TAXIO ARDANAZ.

COMISARIADO POR IÑIGO SARRIUGARTE

2018. XXI edición. “BOSTEKO 2018”. Poéticas del silencio, esencias en resonancia: LUIS MIGUEL GÓMEZ, KOLDO ETXEBARRIA y JESUS LIZASO.

COMISARIADO POR IBON GARAGARZA BERGER

2019. XXII edición. “BOSTEKO 2019”. Más allá del dibujo. Figura y paisaje”: GENTZ DEL VALLE, MERCHE PERIZ Y SONIA RUEDA.

COMISARIADO POR IÑIGO SARRIUGARTE

2020. XXIII edición. “BOSTEKO 2020”. Miradas divergentes, una brisa de Shakkei. Begirada dibergenteak: Shakkei ukitu bat: JAVIER LANDERAS, MIKEL LERTXUNDI, LAURA SAN JUAN.

COMISARIADO POR IVAN GOMEZ E IDOIA LEACHE.

2021. XXIV edición. “BOSTEKO 2021”. Prendido por el aparecer de tu cuerpo: HELENA GOÑI, DANIEL LLARIA E IZARO IEREGI.

COMISARIADO POR AMPARO LOZANO Y JULEN ARALUCE

2022. XXV edizioa "BOSTEKO 2022" Habitar / Bizi.

KOMISARIOTZA: IÑIGO SARRIUGARTE

2023 XXVI edizioa "BOSTEKO 2023. Kaosetik Kosmosera: Unibertsoko Paisaiak: María Alonso Páez, Gorka Gondra, Victor Arrizabalaga.

2022. XXV edición. "BOSTEKO 2022". Habitar / Bizi: IZASKUN ALONSO, MIKEL GARATE Y JORGE RUBIO.

COMISARIADO POR IÑIGO SARRIUGARTE

2023. XXVI edición. "BOSTEKO 2023". Del caos al Cosmos: Paisajes del Universo: María Alonso Páez, Gorka Gondra, Victor Arrizabalaga.

ANEXO 1

Eranskin honetan bost areto parte-hartzaileen ezaugarriak daude jasota, aurtengo edizioko programazio-ordenari jarraituz.

- 1 Leioa
- 2 Zornotza
- 3 Getxo
- 4 Basauri
- 5 Arrigorriaga

ANEXO 1


En este anexo se detallan las características de las cinco salas participantes siguiendo el orden de programación de las mismas en la presente edición.

- 1 Leioa
- 2 Zornotza
- 3 Getxo
- 4 Basauri
- 5 Arrigorriaga

Anexo 1

1 BASAURI – ARIZ DORRETXEA – SALA 0

a) Planoa / Plano



b) Materiala / Material

- TB monitoreo
- Proiektorea
- Soinu sistema
- Oinarriak (neurri ezberdinak)
- Kristalezko markoak (40 x 50 zm-koak eta 50 x 70 zm-koak)
- Hegaxkak

Artistari gela bakoitzean eskuragarri dagoen materiala emango zaio, hala nola erremintak, zulatzeko makina, luzagailuak, ipintzeko oinarriak...

Aretoko paretetan eta sabaietan iltzatu ahal izango da, betiere esku-hartzea gehiegizkoa ez bada, eta erakusketaren koordinatzaileak eta Arizko Dorrearen arduradunak gainbegiratuta.

Kontuan hartuta aretoaren arkitektura babestu behar dela, ezingo da erabili lurzorua eta hormak hondatzen dituzten produktu kimikorik edo urratzailerik. Aretorearen erdiko zutabeak ezin izango dira zulatu.

- Monitor de TV
- Proyector
- Equipo de sonido
- Peana (diversas medidas)
- Marco de cristal (40 x 50 cm eta 50 x 70 cm)
- Varillas

En el centro se dispone de escalera, taladro y material diverso de ferretería que se podrá utilizar en el montaje de las exposiciones.

En la sala se podrá clavar en paredes y techos siempre y cuando no sea excesiva la intervención y bajo la supervisión de la persona encargada de coordinar la exposición y de la responsable del centro.

Teniendo en cuenta la preservación de la arquitectura, no se podrán utilizar productos químicos y abrasivos que deterioren los suelos y paredes y no se podrán taladrar los pilares centrales de la sala.

Anexo 1

c) Foto Sala 0 Ariz Dorretxea




2 LEIOA – KULTUR LEIOA – ERAKUSKETA GELA

a) Plano Erakusketa Gela



Plano de la sala de exposiciones de Kultur Leioa



b) Material Kultur Leioa

Los materiales con los que cuenta la sala de Kultur Leioa son:

- Sistema de sujeción de las obras ajustables en altura y longitud de las distintas paredes.
- Vitrinas de cristal (4 unidades).
- Pantallas de 50" (1 unidades) con soporte con ruedas para ponerlas en cualquier parte de la sala.

c) Fotos Kultur Leioa Erakusketa Gela Leioa c1

b) Kultur Leioan dagoen materiala

Kultur Leioako aretoak material hauek ditu:


- Obrak eusteko sistema, pareten altuera eta luzeran doigarriak.
- Kristalezko beira-arasak (4 unitate).
- 50 "-ko pantailak (1 unitate) gurpildun euskarriekin, aretoaren edozein lekutan jartzeko.



Anexo 1

Leioa c2


Leioa c3



Leioa c4

3 GETXO ROMO KULTUR ETXEA ERAKUSKETA GELA

a) Plano RKE Erakusketa Gela



b) Material Romo Kultur Etxea – Getxo

Getxoko Kultur Etxeak ez du erakusketa elementurik, jarraian zehazten direnak izan ezik, betiere eskuragarritasunaren mende:

- Beira-arasa erakuslea, 100 x 100 x 30 zm-koa (zabalera x hondoa x altuera), kubo beltzaren gainean.
- Kubo zuriak (kontsultatu neurriak eta erabilgarritasuna).
- Bankua.
- 55' gurpildun telebista eramangarria.
- 2 Erakusketa-panel banatzaileak (240 x 250 x 50 zm-koak).
- Sistemak koadroak zintzilikatzen ditu pita hariz.
- Proiektore digitala.
- Pantaila eramangarria.

El Aula de cultura no provee de elementos expositores, a excepción de los que se detallan a continuación, sujetos siempre a disponibilidad:

- Vitrina expositora con cristal de 100 x 100 x 30 cm (ancho x fondo x alto) sobre cubo negro.
- Cubos blancos (consultar medidas y disponibilidad).
- Banco.
- TV portátil con ruedas de 55'.
- Dos Paneles expositivos divisorios e independientes de 240 x 250 x 50 cm
- Sistema cuelga cuadros, con hilo de pita.
- Proyector digital.
- Pantalla portátil.

c) Fotos Romo Kultur Etxea – Getxo Getxo c1




Anexo 1

Getxo c2



4 ZELAIETA KULTUR ETXEA-Amorebieta –Etxano

a) Plano Zelaieta Kultur Etxea Erakusketa Gela




b) Material Zelaieta Kultur Etxea – Zornotza

Los materiales con los que cuenta la sala de Amorebieta son:

- Hagaxkak (horma zulatzeko aukera ere badago) /Varillas (posibilidad de agujerear pared también).
- Kristalezko beira-arasak 43 x 37 x 163 (4 unitate)/ Vitrinas de cristal 43x37x163 (4unidades)
- Hainbat tamainatako idulkiak / Peanas de varios tamaños
- 50 "-ko pantailak (2 unitate) gurpildun euskarriekin, aretoaren edozein lekutan jartzeko/Pantallas de 50" (2 unidades) con soporte con ruedas para ponerlas en cualquier parte de la sala.
- Proiektorea / Proyector.

c) Fotos Zelaieta Kultur Etxea – Zornotza Zornotza c1



Anexo 1


Zornotza c2 Zornotza c3



Anexo 1

5 ARRIGORRIAGA UDALETXEA ERAKUSKETA GELA

a) Plano Udaletxeko Erakusketa Gela



b) Material Arrigorriaga Udaletxeko Erakusketa Gela

Materiala / Material: Arrigorriaga Udaletxeko Erakusketa Gela

- Bitrina / Vitrina: 175 x 5
- Lan-mahai / Mesa de trabajo 1
- 27 pintura-asto / caballetes de pintura
- 8 oin bereizle / pies separadores
- zurezko idulki / peana : 50 x 60
- 125 hagaxka / varilla
- 4 panel mugikorak / paneles móviles 2 x 2

c) Fotos Arrigorriaga Udaletxeko Erakusketa Gela Arrigorriaga c1



Arrigorriaga c2



Anexo 2

En este Anexo 2 se detallan las fechas en las que se realizarán las diferentes acciones relacionadas con el transporte, montaje, inauguración, cierre y desmontaje de la exposición y que el comisariado tendrá que coordinar.

	LEIOA	ZORNOTZA	GETXO	ARRIGORRIAGA	BASAURI
Llegada Trans:	12 septiembre	14 octubre	4 de noviembre		19 de diciembre
Montaje:	12 y 13 septiembre	14 octubre	4 de noviembre	27 de noviembre	19 y 20 de diciembre
Periodo:	16 de septiembre al 6 de octubre	Del 15 de octubre al 3 de noviembre	Del 5 al 25 de noviembre	Del 28 de noviembre al 18 de diciembre	Del 23 de diciembre al 19 de enero de 2025
Inauguración	16 de septiembre		5 de noviembre		
Cierre	6 octubre		15 de noviembre		
Desmontaje:	7 y 8 octubre	4 noviembre (mañana)	26 de noviembre (mañana)	19 de diciembre	20 de enero de 2025
Salida Transp:	8 octubre	4 noviembre (mañana)	26 de noviembre	19 diciembre	20 de enero de 2025
Días de expo.	21	20	21	21	23* *24, 25 y 31 de diciembre + 1 y 6 de enero CERRADO